

Herri Aldizkaria

otomotz

2006ko martxoa 115. alea



Down sindromea: Hain gertu, hain urrun

KOLABORAZIOA: IDOIA LUZURIAGA

ELKARRIZKETAK: MADINA AHIZPAK - MILA OSINALDE

IZERDI PATSETAN: ZIKLOTURISMO DENBORALDIAREN HASIERA

asirauto

Mugitegi industrialdea - URRETXU

Telf. eta fax: 943 72 59 22

Mugikorra: 659 67 89 79



Hilabete honetako aukera berezia:



Audi A4 Avant 2000 TDI 140 CV
2005. urtekoa



Citroën C5 2000 HDI 110CV
2002. urtekoa



Volvo V40 1.8i Automatiko
2001. urtekoa



Opel Zafira 2000 DTI 100CV
2004. urtekoa



Opel Zafira 2000 DTI 100CV
2004. urtekoa



Jeep Wrangler 2.5i
1992. urtekoa



Peugeot Partner 1.9D Combi
2002. urtekoa



Volkswagen Transporter TDI 130CV Combi 6
2004. urtekoa



Audi A4 Avant Quattro TDI 130CV 6 abiadura
2003. urtekoa

ARGAZKI ZAHARRA



1933ko uztailaren 2an, Santa Isabel egunean, "La Pinchada" koadrilakoek Antion ateratako argazkia. Zutik, ezkerretik eskubira: Juan Ormaetxea, Ramon Cortina, Pascual Rubio, Juan Igartua, Ramon Esnaola eta Roberto Aizkibel. Belauniko, ezkerretik eskubira: Ignazio Arrizabalaga, Jose Jaka, Alberto Pérez, Matias Ormaetxea eta Julian Alberdi. Eserita: Antonio Arrazola, Ramon Rubio, Jose Odriozola eta Jose Mari Otaegi.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73

Koordinatzailea: Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Maider Hernando, Jonmikel Insausti, Itziar Ormaetxea, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldúa.


Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua: SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale.


Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

2006ko martxo

KLIK ETA KLIK



KLIK ETA KLIK



Ale honetako argazkiak Jesus Udabek ateratakoak dira.

2006ko martxoa

Down sindromedunak

Gehiengoarekiko ezberdintasunen bat dutenek gizartearen onespena lortzeko arazoak dituzte beti eta Down sindromea duen jendearekin ere hala gertatzen da. Garai batean asko eta asko etxean ezkutatuta bizi ziren, baina euretako askoren eta euren senitartekoen lanak gizartearen jarrera lotsagarria aldatzea lortu dute. Herrian aurrekoaren hainbat adibide daude. Otamotz Manuel Mari Telleriarekin eta bere arreba Maribelekin eta Gorka Zufiaurre eta bere ama

Elena Niñorekin izan da. Manuel Mari izango da, seguraski, herrian irakurtzen eta idazten ikasi zuen lehen Down sindromeduna. Kalera naturaltasun osoz atera eta herritarren maitasuna irabazi zuen. Gorka Zufiaurrek ere ez du aurkezpen handirik behar. Herriko antzerki tailerreko kidea aspalditik, duela gutxi laugarren laburmetraia grabatu du. Aktore lanetik bizitzea erraza ez denez, goizero-goizero Galdeano patata biltegiara joaten da lanera.



Maribel Telleria: "Egungo bizimodua dela eta, independienteak izatea komeni zaie"

Manuel Mari Telleria 1948an jaio zen, maiatzean 58 urte egin behar ditu beraz. Duela hiru urte arte, hil zitzaion arte, amarekin bizi izan zen. Orain, Maribel arrebarekin bizi da. Berarekin hitz egiten izan gara Manuel Mariri buruz.

Umetan, mutiko lasaia omen zen. "Ez zuen arazorik ematen". Arazoa berak eta bere gurasoek izan zuten, eskolara bidaltzeko garaian. "Zumarragako eliza parean mojen eskola zegoen eta gehienok

hara joaten ginen. Anaia bezalakoak garai hartan ez ziren eskolara joaten, baina mojek lasai bidaltzeko esan ziguten. Handik urte erdira etxera bidali zuten. Zalaparta sortzen zuela esan ziguten".

Zorionez, ez zen eskolara joan gabe gelditu. "Medranotarrek etxera deitu eta Manuel Mari hartuko zutela esan zuten. Amak, haserre, ni ere Medranotarrengana bidali ninduen. Anaiari pazientzia handiz irakatsi zioten irakurtzen eta idazten eta

taldean oso ondo integratu zuten. Jokamoldea ere irakatsi zioten. Ausartak izan ziren eta ondo portatu ziren".

Gurasoak ere garai hartako asko baina ausartagoak izan ziren. "Aitak ikas-tetxeren batera bidali nahi zuen, baina horretarako herritik kanpo joan behar zen eta amak ez zuen nahi. Herria izan da anaiari irakatsi diona". Garai batean, lana ere egin zuen. "Aitak aroztégia zuen eta Manuel Mari makina batean jartzen zuen

hain gertu, hain urrun

zuloak egiten. Aita jubilatutako zenean amak ez zuen beste inora lanera bidali nahi izan. Legazpiko Gureak orduan ireki zen, duela 30 bat urte, eta nire ustez anaia ondo egongo zen bertan".

Dena den, Maribel Telleriak aipatu bezala, Manuel Marik kalean ikasi zuen asko. "Gure osabak kalean asko ibiltzen ziren eta izugarri arduratu ziren berataz. Andoni Salameroren aitak toki guztietara

“Medranotarrek anaiari pazientzia handiz irakatsi zioten eta taldean oso ondo integratu zuten”

eramaten zuen eta gizartean murgiltzen lagundu zion. Hala dabil orain nire anaia kalean dabilen bezain lasai! Herri guztiak ezagutzen du eta!". Osasuna lagun du, gainera. "Ez du sekula gaisotasunik izan eta egun ere primeran dago".

Hala, anaia zaindu beharra ez da Maribelentzat gehiegizko lotura. "Gidatu egin behar dugu: ordu honetan hemen, bestean han... esan behar diogu. Bestelakoan autonomia da. Jaikitzen denean, zer arropa jantzi behar duen esaten diot. Gosalduta eta kalera irteten da. Hori bai, guk jarritako orduak zorrotz errespetatzen ditu".

Manuel Mariren zaletasun handiena musika da eta Zumarragako Musika Bandaren jarraitzaile sutsua da. "Entseguetara joaten da eta abesti guztiak ezagutzen ditu. Kontzertu eta pasakalle guztietan izaten da eta Landerrekin aurrealdean joateari uzteko esan diogu, baina ez dio grazia handirik egin. Duela laupabost urte omenaldia egin nahi izan zioten, baina amak ez zuen nahi izan. Amarentzat

Manuel Mari gurutze modukoa izan zela uste dut".

Manuel Mari Telleriaren beste zaletasun handietako bat irakurtzea da. "Idazketa ez du praktikatu, baina egunkaria goitik behera irakurtzen du. Futbola ere atsegin du: Realaren jarraitzaile amorratua da eta lehen Urolaren partidetara ere joaten zen. Bestalde, pilota partida guztien berri du eta berak esaten dio nire senarrari egun horretan zer partida dauden. Fernando Tapiarengatik galdetuz gero... Orbegozen lan egiten zuen eta laguna du. Kartetan jokatzeko ere asko atsegin du. Galeperran badu norekin jokatu eta etxean, berriz, askotan solitarioak egiten ditu. Oinez ibiltzea ere gustukoa du. Bidegorri amaieraraino joaten da inori ezer esan gabe".

Manuel Marik bere garaiko sindromedunek baino bizitza hobea izan du, baina egungoek baino aukera gutxiago ere bai. "Gureak tailerretakoek-eta bidaiak egiten dituzte, baina Manuel Marik ez du sekula halakorik egin. Izan ere, 58 urte ditu dagoeneko eta bere garaian bera bezalakoak baztertuak zeuden. Baserri askotan ezkutuan izaten zituzten eta kaletarrak zirenak ez zituzten kalera ateratzen. Anaia, berriz, beti kalean ibili da".

Hala, herri guztia ezagutzen du. "Hildako guztien berri ematen digu, euren izen-abizen eta guzti. Oso oroimen ona du. Kanpoan bizi diren nire lagunak etortzen direnean, izen-abizenak oroitzen ditu".

Maribelek anaia ondo bizi dela uste du. "Zorionsua dela uste dut. Ez du sufritzen. Bere zaletasunak lantzen utziz gero, gustura. Bestalde, beti edonora joateko prest dago". Orain, Maribelen biloba Anderrekin ere gozaten omen du. "Barre asko egiten dugu, beti bere gain egoten baita. Umearen pare jartzen da. Ander dagoenean protagonismoa galtzen duela iruditzen zaio eta jelskor samar jartzen da. Hori dela eta, beti esaten du zer edo zer kasu egin diezaiozun".

Maribel eta bere familia Atzegiko kideak dira. "Hiru kuota ordaintzen dituzte: izeba Julirena, ama zenarena eta gurea. Amak anaia gehitxo babesten zuela uste dut. Sekula ez zuen dagokion dirulaguntza eskatu. Nik pentsioa eskatzea erabaki nuen, nahiz eta amari ez zion grazia handirik egin. Manuel Mariri probak eginarazi zituztenean bihotzean min egin zidan. Hiru urteko haurrek egiten dituzten gauzak eginarazi zituzten".

Ama hil zenetik, Maribel da Manuel Mariren arduraduna. "Epaiketa izan genuen Bergaran eta bere tutorea zergatik izan nahi nuen galdetu zidaten: anaia

“Egun laguntza asko daude: Manuel Mari baino gazteagoek hobeto integratzeko aukera dute”

ez dut bada kalean utziko! Bestalde, urtero estatuak ematen digun diruarengatik kontu eske etortzen dira. Diru horrekin zer egin dugun azaldu behar dugu. Zer egingo dugu ba 300 euroekin?".

Estatuaren dirulaguntza baino, Atzegiren lana estima handiagoan du Maribel Telleriak. "Atzegiko aldizkaria irakurtzen dut, eskaintzen duen zerbitzuen berri dut eta badakit inoiz beharrik izango banu elkarte laguntzeko prest egongo litzatekeela. Down dutenek poztasun handiak ematen dituzte, baina familiei elkartean sartzea komeni zaie. Egun laguntza asko daude: nire anaia baino gazteagoek gizartean hobeto integratzeko aukera dute. Manuel Mari herri honetan dago integratuta soilik. Egungo bizimodu dela eta, independenteak izatea komeni zaie eta pisu tutelatuak, adibidez, oso ondo daude".

HILABETE HONETAKO GAIA

Elena Niño: "Kromosoma baten kontua besterik ez da, irakatsiz gero emaitzak ikusi egiten dira"



Elena Niñok eta bere senarrak Gorka jaio zenean jakin zuten Down sindromea zuela. "Medikua etorri zen eta haurrak arazo bat zuela, baina sekula ez zuela mingaina aterako esan zidan. Besterik ez zidan aipatu: ez nora joan, ez zer egin... Erizaineekin-eta gimnasia ariketak eginarazten genizkion, baina inor ez zitzaidan bere haurrekin etorri eta *hau da* esan. Berarentzat ona izan zitekeela uste nuena egiten nuen. Ez nekien zer zen hau, mongolikoak deitzen zitzaizela eta Antzuolan beste neska bat zegoela besterik ez".

Urte eta erdi ondoren jaso zuten lehen laguntza. "Gorkak dagoeneko oinez zekien eta baten bat Donostiatik Zumarragara etortzen zela jakin genuen. Harrezkero Atzegirekin harremanetan jarri ginen. Ordurako Gorka oso motibatuta zegoen, ni oso alaia bainaiz eta gauza guztiak egiteko bera kontuan izaten bainuen:

abestu egiten nion, hitz egin... Jendeak Gorkari hizkuntza baten soilik hitz egiteko esaten zidan, baina nik berarentzat ere gauzak bi modutan esaten ikastea hobea izango zela pentsatzen nuen".

Elena Niño harro dago semeaz. "Sekula ez digu arazorik eman, osasunaz fenomeno dago... Guretzat Gorka Jainkoari egunero eskerrak emateko arrazoia da. Oso seme ona da". Zufiaurretarek lan handia

egin dute Gorkarekin. "Down sindromea duten hurrei aurpegian nabaritzen zaie eta, horretaz gain, kardiopatiak, ikasteko arazoak, mingaina lodia... izan ditzakete. Kromosoma baten kontua besterik ez da, egunero irakatsiz eta eskatuz gero, emaitzak ikusi egiten dira".

Eskolan hasi bezain pronto Down sindromea zuela esan zioten eta hori zer den azaldu zioten. "*Hau daukazu, baina besteak bezala pertsona zara* esan diogu beti. Horrek ez du esan nahi ikasteko edo munduan ibiltzeko gai ez zarenik. Hori duzu, hor dago. Berak hori onartu du eta badaki horrek ez diola ezer suposatzen. Lehen pelikula egin zuenean bera bezalako besteek ere halako gauzak egiteko bidea ireki zuela esan zuen. Horrek zer den asumituta duela esan nahi du".

Gorka Zufiaurretak 27 urte ditu

Elena Niño:
"Integrazioa ez da oraindik erabatekoa eta, okerragoa dena, ez da izango"

HILABETE HONETAKO GAIA

dagoeneko. Oinarrizko ikasketak Gainzurin egin zituen eta gero Legazpiko REMera joan zen. Ondoren bi ikastaro egin zituen: tapizgintza eta eraikinen oinarrizko mantenua. Gorkak ikastea "gustuko" duela dio. Egun Galdeano patata biltegian lan egiten du. "Patatak ondo dauden begiratzen dut, garbiketa lanak egiten ditut, zakuak bete, kamioia kargatu, zakuak josi... denetik egiten dut, agintzen didaten guztia".

Lanean gustura dagoela dio. Gainera, arratsaldea nahi duena egiteko libre du. "Antzerki tailerreko entseguetara joaten naiz edo kirola egitera. Aspaldi hasi nintzen antzerkian Juanlu Escuderoekin eta denak lagunak ditut. Kirolari dagokionez, igeriketa eta gimnasia egiten ditut Zumarragako kiroldegian Txolarteko lagunekin. Berotzeko 6 bat luze egiten ditut eta, ondoren, irakasleak dioena".

Elena Niñok Txolarteko batzuek primeran igeri egiten dutela dio. "Urtean behin Altzako kiroldegian izaten den txapelketara joaten dira eta domina asko lortu dituzte dagoeneko. Denek dute teknika ona, baina batzuek primerakoa".

Kirola egiteaz gain, lagunekin ere irteten da. "Asteburuetan lagunekin gelditzen naiz Legazpiko Txolarten. Lagun atse-

ginak ditut". Gorkaren amak Urretxu-Zumarragan ez dagoela nahikoa begirale dio. "Hangoak eta hemengoak elkartu dira eta larunbat batean hara joaten dira eta bestean hemen elkartzen dira. Taldea pixkana-

Gorka Zufiaurre: "Lagunekin gelditzen naiz Legazpiko Txolarten. Lagun atseginak ditut"

ka murrizten ari da eta hemendik oso gutxi joaten dira jada. Halako ekimenak beharrezkoak dira, baina...".

Parte hartzen dutenek hainbat jarduera izaten dituzte. "Eskiatzera ere joaten gara. Duela aste batzuk Somporten izan ginen eta udan udalekuetara joaten naiz. Ondo bizi naiz". "Geroz eta hobeto", dio bere amak. "Lehen ez zen lanera joaten, baserrian nahiko lan baitzegoen. Bestalde, ez zaio ezer egin gabe egotea gustatzen, segituan aurkitzen du zereginen bat: makil batzuk moztu sutarako, musika entzun,

puzlea egin... 2.000 piezatak egin ditu eta garajea dituzte jarrita". "Hori da nire pasioa", dio Gorkak, "pazientzia daukat".

Gorkak bizitza osoa du, baina bere amak gizartearen jarrera oraindik behar bezain ona ez dela salatu nahi du. "Aurrerapausoak eman dira, orain denak kalean daude eta jendea ohitu egin da, baina askok gupidaz begiratzen diete oraindik. Dena den, integrazioa ez da erabatekoa eta, okerragoa dena, ez da izango. Adin batera heltzen direnean gazteak ligatzera joaten dira, adibidez. Gorkarekin ligatzera joanez gero, bi neska joango al zaizkie? Zoritxarrez, ez. Hori dela eta, gazteak Gorkari aitzakiak jartzen hasten dira. Mendira edo zinera joateko lagunak dira, baina neskatan ibiltzeko ez. Hauek beraien arteko neskekin ligatzen dute eta hori ere onartu egin behar da. Gorkak ez du sekula koadrila izan. Lagun mordoa bai, baina koadrilarik ez. Arrebaren koadrilarekin, Txajerekin, Mikelekin... irteten da".

Lana lortzeko ere zailtasun handiagoak izaten dituzte. "Toki batean Gorka hartzera ez zirela ausartzen esan zidaten, bezeroek zer esango ote zuten beldur zirela. Gureak tailerrak fenomeno daude, askok han dute lan egiteko aukera bakarra, baina ahal izanez gero handik kanpo lan



www.megadenda.com

Megadenda
zure aukera musika eta liburutuan

ramos
Bergara, 6
20005 Donostia
Tel.: 943 42 63 50

bilintx
Fermin Calbeton, 21
20003 Donostia
Tel.: 943 42 00 80
(Jai egunetan zabalik)

Paseo Colon, 8
20302 Irun
Tel.: 943 63 17 26

Arostegieta z/g
20400 Tolosa
Tel.: 943 67 35 33

Ibargarai, 12
20570 Bergara
Tel.: 943 76 40 50

tarjeta megadenda txartela

2006ko martxoa

HILABETE HONETAKO GAIA

egitea nahiago dut. Han muga bat dago: gehien dakienaren pare ikasiko du. Handik kanpo ez dago mugarik. Gorka asko aldatu da lanean hasi zenetik: irekia-goia da, jendearekin tratu handiagoa du... Izan ere, berez isil samarra da. Gainera, soldatak askatasuna ematen dio".

Egun Down sindromea duten familiek egin beharreko lana Zufiaurretarek bere garaian egin zutena baino samurragoa da. "Ospitaletan pediatrak-eta oso prestatuta daude eta berehala ematen dute Atzegiren berri. Gu ere elkar-teko kideak gara eta Atzegizaleak egiten saiatzen gara. Guraso berriei laguntzen ere saiatzen gara. Beti esan dut: gauza gutxi dakit, baina Gorkari buruz hitz egi-teaz ez nintzateke sekula nekatuko".

Elena Niñok guraso berrien atse-

kabea ulertzen du, baina aurre egin behar zaiola dio. "Seme-alabaren bat hanka baten faltan jaiotzen bada, edo mutu, edo itsu... arazoa da eta mementoan ez dakigu zer egin hori onartzeko eta lasaitzeko. Sekula ez dugu espero halako gauza bat, guztiok seme-alaba altuak, ilehoriak eta arkitektuak izatea espero dugu, baina errealitatea ez da hori. Datorrena hartzen eta onartzen ikasi behar dugu, azken fine-an, gure seme-alabak dira. Maitasunez egin ditugu, beraz, hartu eta lagundu egin behar zaie. Ez da mugarik jarri behar".

Gorkaren amaren ustez, alde handia dago familia batzuetatik besteeta-ra. "Familia guztiek maite dituzte Down sindromedun seme-alabak, baina batzuek ez dute errealitatea onartzen. Bizi guztia ematen dute *zergatik gertatu zait hau niri?* esanez. Bestalde, gehiegi babesten

dituzte: *gaixoa, nahikoa dauka...* esaten dute eta ez diete gogor egiten, ez dituzte lantzen. Gorkak hitz luzeegiren bat esan ezin badu, idatzi eta irakurri egiten du menperatu harte. Beti ahalegindu da bere burua gaintitzen".

Amak eta berak taldea osatzen dutela eta behar duen guztietan ama hor duela dio Gorkak. "Gozada izan da Gorkari irakastea. Erronka handia izan da, baina bere izaerak asko lagundu dit. Arazo gehiagorekin jaio izango balitz ere, berdin-berdin lagunduko nioke. Neure semea da eta ez dauka zentzurik egun osoa negarrez ematea. Jaio eta berehala onena izango zela esan nion. Nire helburua bera autonomoa izatea zen. Ez dakizue ondo nolakoa den! Logelatik irten aurretik dena txukun uzten du, sekulako edukazioa du... oso ikasle ona da".

Bi laburmetraia grabatu ditu azken asteotan

Duela gutxi Gorkak Jon Anduezarekin laugarren laburmetraia grabatu du: otsaileko azkeneko asteburuan joan ziren Donostiara horretara. Zortzi urte pasatu dira dagoeneko Gorkak Anduezarekin azken lana grabatu zuenetik. "13 urterekin grabatu nuen lehen-a, handik bi edo hiru urtera bigarrena eta duela zortzi urte hirugarrena".

Gorkak eta bere familiak zinean lan egiteko gogo bizia zuten dagoeneko eta, Elena Niñoren esanetan, eurak zuzendu ziren Anduezarengana. "Atzegik urtero kontzientziazio kanpaina egiten du eta aurten laburmetraien lehiaketa antolatu du: Txolarte elkarte-etako begirale eta neska-mutikoez egin behar dute. Jonen emazteari gidoia guk prestatuko genuela, baina grabatzeko bere laguntza beharko genuela esan nion. Ez zidan erantzuten eta harritu egin nintzen. Halako batean Sara alabaren kontzertu batera joan nintzen Donostiara eta Peter Ansorenak Jonek deitu al zuen galde-tu zidan. Berehala konturatu zen hanka sartu zuela. Hurrengo egunean deitu zigun Jonek eta dena lotuta eduki arte ez zuela ezer esan nahi aipatu zigun".

Bilintx izenburua duen laburmetraia mutua da eta pertsonaia nagusia Gorka bera da. Hasieran ez dute casting batean onartzen berezia delako, baina, azkenean, bere numeroak arrakasta izatea lortzen du. Entseguak oso gogo-



rrak izan omen dira. "Txarloten moduan ibiltzen ikasi behar izan du eta ez da batere erraza, baina Gorka oso ikasle ona da", dio bere amak. "Espero baino gehiago ematen du beti".

Gorka Zufiaurre oso gustura aritu da, berriro zinean lan egiteko gogo bizia baitzuen. "*Ezer gehiago egiten ez baduzu ere, askok eta askok baino gehiago egin duzu, munduan aktore asko dago...* esaten nion", dio Elena Niño amak. Denbora honetan herriko Karmakros antzerki taldearekin lan egin du. Fox tabernan eta antzokian bakarrizketak eskaini ditu, besteak beste. "Antzerkiko lana oso dibertigarria da", dio. Telebistan ere aritua da,

azkenekoz Dani Arizalaren saioan. Hala, jende askok eza-gutzen du edonora joanda ere. "Jendeak ezagutzea eta nire lanari buruz galdetzea gustuko dut", dio.

Anduezarekin grabatu duten filma ez da Atzegiko lehiaketarako. Legazpiko eta Urretxu-Zumarragako Txolarte elkarteek ere euren laburmetraia grabatu dute. "Maider Sudepek grabatu du eta guztiok parte hartu dugu, hogeiren batek. Gidoia nik egin dut: guateke barruan gertatzen den istorioa da. Barre asko egin dugu, guztiak euren paperetan oso sartuta lan egin baitute", dio Elena Niñok. Aurrera begira, Gorka Zufiaurrek "zuzen aurrera" jarraitu nahi du eta "pelikula gehiago egin", noski.

Down sindromea dutenen integratorako nahikoa egiten dela uste al duzue?



David Pérez

Oraindik lan gehiago egin behar dugu gizartean beraien alde. Dirudienez gaixo daude, baina ez da hala. Normaltasunez tratatu behar zaie. Egia esan, horrela beren bizi kalitatea hobetuko litzatekeela uste dut. Bide luzea dago egiteko oraindik.



Itziar Pérez

Inguruan ez dut Down sindromea duen inor, baina poliki-poliki aurrera egin dutela uste dut. Dena den, geroz eta haur gutxiago jaiotzen dira Down sindromearekin. Bilakaera izan da eta gaur egun pertsona normalen moduan tratatzen zaie. Egia da ere, oraindik hasieran erreparoa ematen digula beraiengana zuzentzea.



Paqui Sánchez

Egia esan, ez dut Down sindromea duen inor gertutik ezagutzen. Tebistaren arabera, euren kabuz moldatzeko gai dira: tailerretan lanean eta abar. Guk uste dugu ez direla ezertarako gai, baina egunero-egunero erakusten dute kontrakoa. Arazoa ez da eurena, gizartearena baizik.



Victoria García

Mutil bat nahiko ondo ezagutzen dut. Egia esan, izugarriko saltoa eman da azken urteotan. Ondo integratu dira, baina oraindik lan gehiago egin behar da horren alde. Ahal bezainbeste. Kasu gogorrek ezagutu ditut: Errioxan neska bat lotu egiten zuten txikitan. Oraingo egoera askoz ere hobea da.

Montaje e Instalaciones Electricas
HERCE
Electricistas M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

TABERNA

Jaureratu
JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar zain

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

Denda alokatu edo saltzen da Antzuolan Martxan dagoen argazkidenda-bitxitegia

943 78 70 66
635 757 271

BIONA

AROTEGIA

Altzariak neurria

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

ETXABURU
merenda-lekua



Santa Barbara bidea - ☎ 943 72 22 77 - URRETXU

Madina ahizpak: familiar

Urretxun jokatu den Gipuzkoako Euskal Kantu txapelketako kanporaketan ez da herritarrik izan, baina duela bi urteko ekitaldian Madina ahizpek eta Andoni Elorzak osatzen duten laukoteak parte hartu zuten. Beti esan da euskaldunok kantuzaleak garela eta Madinatarrak behintzat badira:

autoan ez dute sekula irrati-kasetik izan eta familia bazkari eta afarietan ere abesteko ohitura dute. Nerea, Maite eta Karmele ahizpek jendaurrean ere abesten dute Andoni Elortzarekin batera. Hala, Urretxuko jaietan eta Kilometroak 2002ko jaialdian aritu dira, besteak beste.



Nerea, Maite eta Karmele Madinak 33, 29 eta 25 urte dituzte eta gurasoen eskutik hasi ziren kantuan, Nereak ondo oroitzen duen moduan. "Gurasoek San Martin parrokiako abesbatzan abesten dute eta sekula ez dugu irrati-kasetik izan kotxean, beti kantuan ibili gara. Denetik abesten genuen, bai gaztelaniaz eta bai euskaraz. Gure lehengu-

suek beti *Tio Madinaren* kotxean joan nahi izaten zuten".

Sei anaia-arreba izanik, giro ederra izango zen Madinatarren kotxean... "Antxoni asko gustatzen zaio abestea eta ahots polita dauka, Garik ahots txarra du eta Aitor ez da zalea".

Nerea izan da musika ikasketak osatu dituen bakarra. "Piano, solfeo irakasle eta pedagogia musikal ikasketak egin nituen eta Bergarako Musika Eskolan lan egiten dut. Pianoa beti jo izan dut etxean eta besteek kantatu egiten zuten. Partiturak nituen eta bi ahotsetan abesten irakatsi nien. Gero, Andoni sartu zen, Maiteren

etik eszenatokira

mutil laguna". "Mutil ahotsa asko nabari da. Izugarri betetzen du. Gainera, jendearen aurrean abesten ohituta dago eta bera da guri lasaitasuna ematen diguna", dio Karmele Madinak. Euren emanaldiak apur bat gehiago janzteko, Nereak teklatu txiki batekin akonpainamendua egiten du.

Osaba-izeben zilarrezko ezteietan eta lehengusuen ezkontzetan hasi ziren jendaurrean abesten. "Jendeak entzun ahala, deitzen hasi ziren. Duela bost bat urte hasiko ginen etxetik kanpoko ezkontzetan abesten. Gero, Kilometroetan herriko taldeekin egin zen jaialdian abestu genuen eta Txalaparta Egunean eta Urretxuko jaietako txistularien alardean ere parte hartu dugu", diote Madina ahizpek.

Gipuzkoako kantu txapelketan ere parte hartu zuten, duela bi urte. "Aurtengoan ez dugu parte hartu, Andoni ez baitzegoen prest. Ez zaizkio lehiaketak gustatzen. Gainera, txapelketak prestatu egin behar dira eta guk denbora gutxi dugu. Duela bi urte egin zen hartan, halakoetara jendea oso ondo prestatuta joaten dela konturatu ginen".

Garikoitz Lizarraga eta Iñaki Larrañaga trikitilariak ere eskaini diete elkarrekin emanaldiren bat prestatzea, baina horretarako ere denbora falta dute. "Denbora da arazoa. Nereak bi haur ditu, Maitek eta biok ordutegi ezberdinak ditugu lanean... entseiatzeko arazoak ditugu", dio Karmele Madinak.

Hala, Madina ahizpek kontzertuen aurreko asteetan entseiatzen dute batez ere. "Ni naiz andereñoa, errieta egiten duena", dio Nereak txantxetan. Denetik abesten dute, "baina gehienbat euskal kantuak. Izan ere, horiek dira abesteko deitzen digutenei gehien gustatzen zaizkienak. Jendeak dextente deitzen du ezkontzetan-eta emanaldiak eskatzeko".

Gurasoak pozik dituzte, noski. "Etxeko giroan hasi ginen abesten eta hortik

dator dena. Familiako ezkontzetan guk abesten dugu, baina bazkalostean lehengusu guztiok batera abesten dugu. Familia kantuzalea gara".

Familia girotik sortutako taldea izanik, zenbait aje dituzte. "Xabier Barriolak mikrofono gabe abesten ohituta gaudela nabaritzen dela esaten digu beti.

"Xabier Barriolak mikrofono gabe abesten ohituta gaudela nabaritzen dela esaten digu beti"

Mikrofonoarekin ez dago ahots guztia atera beharrik, baina guk ahotsa behartzeko joera dugu. Hala ezin da kontzertu luzerik eskaini. Hori dela eta, ahotsa lantzea ondo egongo litzateke".

Dena den, Nerea eta Maite abesbatzan abestutakoak dira. "Maite eta biok Kimetsen abestu genuen eta bi urtetan Pagoetako Irimo-Azpi korua zuzendu nuen. Umea izan nuenean, utzi egin behar izan nuen", dio Nereak.


Aipatu bezala, Madina ahizpek denetik abesten dute; baina badute abesti bereziki kuttuna dena: *Ai zer plazerra*. "Nerearen ezkontzan eta Kilometroetan abestu genuen eta jendeak asko eskatzen digu. Askotan abestu dugu eta jendea aspertuko ote dugun beldur gara. Bestela, Benitoren eta Mikel Laboaren abestiak asko gustatzen zaizkigu", dio Maitek.

Normalean, ezkonkideek gustuko dituzten abestiak eskaintzen saiatzen dira. "Euren senitartekoei deituta joaten gara eta lehenago zein abesti gustatzen zaizkien galdetzen diegu".

MURUA
Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan



- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



BAPRI
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak,
katuak, dordokak...

Urdaneta, 3 ☎ 943 72 61 13
ZUMARRAGA



Legazpi, 5

☎ 943 72 62 74
ZUMARRAGA



Idoia Luzuriaga

“Akatsak”

Irrati kate bat entzuten izan naiz. Bertan, entzuleek kate horretan eskainitako saio, informazio eta edukiei buruzko iritziak plazaratzen dituzte. Entzule batzuek hausnarketa soilak eskaintzen dituzte baina beste zenbaitek kritika zorrotzak egin. Kazetariari dena kritikatzeko gai ikusten dute bere burua: "egunon" esateko era, herri baten izena ahoskatzeko modua, gai jakin bati eskainitako denbora, gonbidatu bati egindako elkarrizketa mota... Aberasgarria da entzuleak "dena" dakiela ikustea, bere jardunean "akatsik" ez duela egiten, bere inguruko errealtate guztia "kontrolatzen" duela. Kazetaria lasaitu egin liteke. Edo hala egin beharko luke behintzat, hainbeste erratu ondoren, nork zuzendu baduelako (zuzendariaz gain).

Gaur barregura eman dit, egia esan, baina ez grazia berezia egiten didalako, neure burua kazetari horren tokian irudikatu dudalako, eta hori zelako aukerarik "egokiena". Guri ere, ni eta nire lankideoi, gertatzen zaizkigu horrelakoak, gure "akatsak" oso publikoak direlako. Baina hori ez da dena, egun edota aste berean zenbait iritzi kontrajarri jasotzen ditugu: "Gai horretan alkatetzaren iritzia jaso duzue bakarrik", eta bestaldetik, "gai horretan alkatearekin hitz egin bazenute, informazioa borobila zatekeen" edo "aste osoa daramazue gai berberarekin" eta "orain arte ez duzue ba horren berri eman!"... A, bale...

Hori gaiaz jabetu garenean, ze batzuetan, eta herri informazioa jorratzen dugularik, "ez gara enteratu herritar batek lortutakoaz edota ez dakit ze auzotan gertatutakoaz". Noski, radarra okertuta edo martxan jarri gabe omen geneukan; a ze profesionalak! Beste batzuetan, datuak "okerrak, osagabeak edota berandu emandakoak" dira. Alproja halakoak!

Azkenik, zenbaitetan, eta prentsa idatzia eta ikus-entzunezko komunikabideei dagokienez, ez dugu hango edo hemengo irudirik publikatu, ez gara hango edo hemengo ikuskizunean egon... Kafetxo batek alferkeriatan harrapatuko gintuen eta, beneta-

ko kazetari sena eta profesionaltasuna duen hori eguneko 24 orduetan baita kazetari eta beti dago prest...

Bestalde, eta irrati kate horretako kazetariak "lasaitzeko", badira egindakoa lan "ona" izan dela azpimarratzen dutenak. Baina, eta are gehiago, eta eskertzekoa dena, datuen berri eman, erreportaia posibleak proposatu edota gai ezberdinen inguruko interesa agertzen dutenak. Herri informazio "xumea" jorratzen saiatzen garenontzat ere badira horrelakoak, eta haien lankidetzaren benetan eskertzekoa da, herri informazioaren iturri zuzena eta protagonistak herritarrak direlako, hain zuzen.

Ez dira gutxi hori ulertu dutenak eta bai Urretxu eta Zumarraga zein beste herrietan arlo ezberdinen inguruko informazioa iritsiarazten diote herri aldizkari, egunkari, irrati edo telebistari: kultur ekitaldiren bat dela; kirol kronikak edota emaitzak direla; edozein motatako deialdiak; jardunaldiak; herritarrek herritik kanpo lortutako sari edo emaitzak, edo bere auzoan edota plazan ikusitako aldrebeskeriaren bat...

Izan ere, herrian, hemendik kanpo oihartzunik ez luketen gaiak baitira albiste, eta era berean kale-ratzen saiatzen garenon lehengaia (Argiñanorentzat oliba olio bezain garrantzitsua). Politikariak komunikabide honi edo hari emandako diru-laguntza mahai-gainean jarri eta aho bete jakinarazten duten bitartean (eta zenbaitek horrekin dena eginda dagoela pentsatzen dutenean), herritarrek ederki ulertu dute tokian tokiko komunikabidearen egitea zer den eta horretan dihardute, bertara joz eta elikatuz eta honekin, komunikabide benetan plurala eta anitza lortuz. Plurala, anitza eta guztiontzat irekia diot, oraindik ere ikasteko asko dudan arren, gero eta argiago baitut horixe dela zintzotasunetik gertuen lortu dezakeguna komunikabideez hitz egiten ari garenean. Objektibotasuna, laborategiko asmakizuna delako, eta ez delako existitzen...

ZUEK BAI JAKIN!

Mila Osinalde: musikaz maiteminduta



Mila Osinalderen amak pianoa ikasteko aukera ez izanaren pena zuen eta seme-alaba guztiei musika ikasketak eman zizkien. Milak ikasitako horri probetxua ateratzea eta musika bere ogibide egitea erabaki zuen. Urretxu eta Zumarragako ehundaka hurrek ikasi zuten

berarekin solfeoa eta pianoa jotzen. Institutuan ere klaseak eman zituen eta, azkenik, Secundino Esnaola Musika Eskolaren sorrera bultzatu zuen. Egun lasaiago bizi da, organoa jotzea izugarri atsegin du eta oraindik lagun gutxi batzuei klase ematen die.

2006ko martxoa

ZUEK BAI JAKIN!

Zelai-Ariztin antolatu zuen emanaldietako batean.

Umorerik ez zaio falta Mila Osinalderi.



Zein familiatan jaio zinen Mila?

Osinalde gozotegiaren gainean jaio nintzen. Gozotegia gurasoena zen. Aita baserritarra zen eta ama Azpeitikoa. Aitaren familian hamaika anaia-arreba ziren eta amarenean hamabi. Eta nik... nik seme-alabarik ez! Hainbeste izanik, lehenbailehen jendeak baserritik alde egitea komeni zen eta aita osabarena zen Osinalde gozotegira etorri zen 10 urterekin-edo. Aitaren osabak Ameriketara egindako diruarekin ireki zuen negozioa.

Garai batean Osinalde gozotegia sekulakoa izan omen zen.

Benoa... txokolate fabrika zen! Txokolatea dendetara saltzen zuten. Aita Bergara aldera-eta oinez joaten zen saltzera. Azpeitia aldera ere asko joaten zen. Landeta auzoko denda, denetik saltzen zuten horietakoa, amaren familiarena zen eta hala ezagutu zuten elkar. Txikitari gure euskarak Azpeitiko kutsua zuen.

Gozodendan lan egindakoa izango zara.

Pianoa horregatik ikasi nuela uste dut, ihes egiteko... Kristalak garbitzeari sekulako gorrotoa nion. Amari ikasi beharra nuela esaten nion eta amak barkatu egiten zidan. Aita oso gutxi joan zen eskolara, baina ama apur bat gehiago bai. Pianoa eta antzerakoak herriko jauntxoek seme-alabek soilik ikasten zituzten. *Las señoritas de Urbistondo*, esaten zuen amak. Berak inbidia handia pasatzen zuen, baina bere

amak hori ez zela euren kategorirako esaten zion. Hori dela eta, egunen batean ezkontzen bazen eta seme-alabak izaten bazituen, pianoa ikasteko aukera emango ziela pentsatzen zuen. Amak ez zuen musi-

“Egunean 14 bat ordu lan egiten nuen: Musika Ikastetxea ireki genuenean 100 bat ume nituen!”

ka kultura handirik, baina telebistan orkestraren bat ikusten zuenean liluratuta gelditzen zen: hainbeste gizon... esaten zuen. Beretzat gizonak gehiago ziren. Kotxean Azpeitira eramaten nuen batzuetan eta batenbat pasatzen nuenean *lotsagabea zara, gizonari pasatzea...* esaten zidan.

Amaren nahia izanik, gazte hasiko zinen musika ikasten.

Bost urterekin! Nire lehen maisua Urretxun plaza duen Belaustegi izan zuen. Umea nintzen eta gizon zaharra zen oroimena dut. Lotsatuta joaten nintzen. Olaetxearekin ere ikasi nuen. Beranduago mojak karrera ematen hasi ziren, Donostiara joaten ginen azterketak egitera,

eta Zumarraga guztian lau ginen klase ofizialekara joaten ginenak. Ondoren, 15 bat urterekin, Donostiara joan nintzen kontserbatoriora. Egunero joaten nintzen trenean. 18 urterekin bukatu nituen ikasketak.

Anaia-arreba guztiek ikasi al zenuten musika?

Lau ginen, baina gazteena, Fermin, duela urte batzuk hil zen. Mieloma izan zuen eta nik emandakoarekin transplantatea egin zioten. Horrek are gehiago elkartu gintuen. Bost bat urte oso ondo igaro zituen, baina... Berak ere sekulako musikazaletasuna zuen. Nire medula jarri ziotenean 12 bat egun eman zituen kamera baten barruan, isolatuta, eta zeharkako flauta sartzeko eskatu zuen. Ba al dakizu nork irakatsi zion instrumentu hori jotzen? Ramon Esnaolak. Etxean, denok egin genituen solfeo eta piano ikasketak.

Zu izan al zinen musika mundua lanbide hartu zuen bakarra?

Bai. Hasieran amari ez zion ilusio handirik egiten. Karrera serio hartu nuenean eta Donostiara kontserbatoriora joaten hasi nintzenean *hori zertarako nahi duzu? ikas ezazu beste karrera bat, fundamentuzkoa* esaten zidan. Izan ere, garai hartan mojek bakarrik ematen zituzten klaseak hemen. *Hori, neska, moja joaten bazara*, esaten zidan.

Ikasketak bukatu eta berehala hasi al

ZUEK BAI JAKIN!

Ramon Esnaolarekin biek bultzatu zuten Musika Eskolan.



zinen lanean?

Gure etxean, Jainkoari eskerrak, ez zegoen lan egiteko beharrik. Garai hartan emakumea etxean egon behar zen, baina ni liberal samarra nintzen eta nire kabuz klaseak ematen hasi nintzen. Ikasitakoari probetxu ez ateratzeak pena ematen zidan. Inguruko batzuekin hasi nintzen, oso pozik. Umeei errieta egiten banien, ama euren alde jartzen zen! Gurasoen etxean ematen nituen klaseak, baina ume asko etortzen hasi ziren eta amak hori ez zela posible esan zidan. Hori dela eta, ondoko etxera etorri nintzen.

“Askotan joan ginen Jaurlearitzara, Kontserbatoriora... herrian eskola ofiziala lortzeko”

Egunean 14 bat ordu lan egiten nuen: Musika Ikastetxea ireki genuenean 100 bat ume nituen! Carmina Ordoñezek laguntzen zidan, baina ez zekien euskaraz eta euskaldunek nirekin nahi zuten. Carminak eta Agurtzane Albisuak, besteak beste, nirekin hasi eta bukatu zituzten ikasketak.

Zenbat urte daramazu dagoeneko klase-

ak ematen?

Bueno... berrogeitik gora. Umeak oso gustuko ditut. Gainera, garai hartan egunero ematen zen klase. Pianokoak astean hirutan, baina solfeokoak egunero etortzen ziren. Sekulako zalaparta izaten zen etxe honetan. Izugarri gozatu dut, nire umeak ziren! Donostiara azterketa egitera joaten ginenean, gaintitzen ez bazuten, eurek baino atsekabe handiagoa izaten nuen. Egindako azterketa gaintitzeko modukoa zela uste banuen, epaimahaikoengana joaten nintzen nire ikasleak defendatzera! Gero bazkaltzera joaten ginen guztiok eta trenean kantuan itzultzen ginen. Emaidza oso onak lortzen genituen: ia guztiek gaintitzen zuten azterketa. Horretarako, behar bezainbeste lan egiten genuen. Azterketa bezperan, igandea bazen ere, erreposoa egiten genuen. Asko lan egin dut, baina gustura. Horrek ez du inongo meriturik.

Kalean jende asko ezagutuko duzu.

Nire etxera etortzen zirenak bai, baina gero Beasaingo eta Urretxuko institutueta hasi nintzen, beranduago Musika Eskolan... Mila ikasle izango ziren, behar bada, instituto bakoitzean.

Noiz eta nolatan hasi zinen Joxe Mari Iparragirre institutuan?

Ireki zutenean. Musika ikasgaia zegoen eta hau Falangearen "Sección Femenina" delakoaren esku zegoen. Euskal Herrian oso gaizki ikusia zeuden eta oso

Herri Aldizkaria
Otamotz

aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 03 64 74 telefonora.
Merkea eta ona!

Farmanki

Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13



ALTZARIAK
MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28
URRETXU

centro óptico
Javier Arratibel
óptica

Ikusmenaren neurketa - Begietako tentsioaren neurketa - Graduatutako eta eguzkitarako betaurrekoak - Lentilak - Termometroak eta barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84



SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

ZUEK BAI JAKIN!

gustura hartu ninduten: euskalduna eta abizen euskaldunekin... Hasieran ondo, baina gero afiliatzeko eta bileretara joateko eskatu zidaten. Nahi izan banu, haien eskutik, Madrilen puntaren-puntan izango nintzen, baina uko egin nion. Etxean abertzaleak ziren eta aitak euskaraz hitz egitera behartzen gintuen... nire ohorean nuen jokoan. Hiru edo lau urte eman nituen institutuan. Musika klaseak neskentzat ziren, baina mutilek ere etortzea eskatzen zuten. Marta Cárdenas margolariarekin musika eta pintura bateratu genituen klase batzuetan. Oso gauza politikak egin genituen.

Eta ondoren?

Institutuak ezaguna egin ninduen eta ikasle gehiago etorri ziren etxera. Dena alde izan dut: pisua hutsik klaseak eman ahal izateko, zinea ere niretzako nuen ikasleekin kontzertuak eskaini nahi nituen guztietan... Izan ere, Zelai-Arizti zinea aitarena zen. Berak ireki zuen beste bazkide batzuekin. Nire ahizpa txarteldegian egoten zen eta gure dendan ere sarreak saltzen ziren. Dena libre nuen, musutruk... Kontzerturako pianoa Donostiako Bengoa etxeari eskatzen genion.

Azkenik, Musika Eskola sortzeko ahalgina egin zenuen.

Lehenago organoa jotzen hasi nintzen. Lehengusuak-eta ezkontzen hasi ziren eta organoa jotzeko eskatzen zidaten. *Hori beste mundu bat da!* esaten nien. Kontserbatorioko Estebani zer jo galdetu nion eta egun batzuetan berarengana joateko esan zidan. Gustuko banuen, klaseak emango zizkidala. Azkenean, organu ikasketak egin nituen.

Nolatan sortu zenuten Musika Eskola?

Nire etxean ezin nituen ikasketa ofizialak eskaini, azterketa egitera Donostiara joan behar genuen. Hori dela eta, askotan joan ginin Jaurlaritzara, Kontserbatoriora, udaletxetara... herrian eskola ofiziala lortzeko. Udalaren babesa eta sei irakasle tituludun izatea eskatzen zuten. Nire ikasle izandako batzuk eta ni tituludunak ginin, baina zeharkako flauta eta biolin irakasleak ere behar genituen. Irundik ekarri genituen biak. Horregatik dago Zumarragan banda, irakasle onak



izan ditugulako.

Kontzertuak eskaintzen al dituzu?

Pianoarekin ez ditut kontzertu asko eskaini. Organoarekin, berriz, asko eskaini ditut hemen inguruan. Bestalde, urtero bidaiaren bat egiten dut lagun talde batekin organoak ezagutzeko. Italian, Frantzian, Espainian... izan gara. Espainiako herri txikietan organo zoragarriak daude. Euskal Herrian ondo zainduta daude, baina hor zehar... Gabirian, adibidez, organo barroko oso ona dago Gipuzkoako Foru Aldundiak konponduta, Ataungoa grabatzera Japoniatik etorri izan dira... Azkoitikoa eta Donostiako Santa Mariakoa jo ditut, baina Artzai Onekoa ez dut oraindik ikusi ere egin. Ikaragarria omen da. Organu munduak

asebetetzen nau. Aurten Ingalaterrara joango gara, organoak egiten dituen lagun baten eskutik.

Zer beste afizio dituzu?

Igeri egitera egunero joaten naiz kiroldegira, mendira joatea ere asko gustatzen zait... Aita oso mendizalea zen. Mendian behorak zituen eta zortzi bat urterekin aitari niri pianoa erosteko zaldi bat saltzeko esan nion. Tratu hori egin genuen azkenean.

Zenbat ikasle dituzu egun?

Bospasei bakarrik. Gurasoak asko aldatu dira urte hauetan. Lehenago irakasleari laguntzen zioten. Orain, berriz, euren seme-alabei ezin zaie ezer gaizki egin dutenik esan.

Goierriko zikloturistak, edozertarako prest



Iazko denboraldi amaieran. Argazkia: Goierriko Hitza.

Txirrundulariak hasi dira poliki-poliki errepidetara irteten. Hemendik aurrera gero eta gehiago ikusiko da Goierri Kirol Elkarteko zikloturismo sailekoen maillot urdina. Batzuk denbora pasa eta tokiak ezagutzeko ibiltzen dira bizikletan;

Goierri Kirol Elkarteko zikloturistek hil honetan eman diote hasiera 2006 denboraldiari. Igande honetan bosgarren irteera osatuko dute, Algorrira hain zuzen ere. Goierrikoak igandero irtengo dira, abuztuan izan ezik, urriaren 8a bitartean. Horretaz gain, uztailaren 25ean Ordizia Klasikoa ikustera joango dira eta urriaren 12an Zumarraga-Zumaia bidegorria osatuko dute. Ekimen honek sekulako arrakasta izan zuen iaz.

Urteroko moduan Euskal

beste batzuk, berriz, lehiatzea dute gustuko eta ekainean Huescako Sabiñanigo herrian izango den Quebrantahuesos froga gogor prestatzen ari dira. Batzuekin eta besteekin izan gara euren zaletasunari buruz hitz egiten.

Herritik kanpora ere joango dira: apirilaren 28tik maiatzaren 1era Leonen izango dira, uztailaren 8an Piriniotara joango dira, uztailaren 28tik abuztuaren 5era Alpeetan izango dira eta irailaren 9an Errioxara joango dira.

Zikloturistek Europako mendate garrantzitsuenak primeran ezagutzen dituzte dagoeneko, 28 urte baitaramatzate pedalei eragiten. Anton Rodriguezek eta Iñaki Urdangarinek dioten moduan, taldea asko hazi da urte hauetan guztietan.

"15 lagun hasi ginen eta egun 125 inguru gara Goierriekin federatuta gaudenak". Txirrundulari gehienak 35 urtetik gorako gizonezkoak dira. "Taldean bi neska bakarrik daude eta gehienok 40 urtetik gora ditugu. Bestalde, 60 urtetik gorako 10 lagun daude".

Zikloturismoa beterranoen kontua da, beraz. "Bizikletan ibiltzen diren gazteek lehiatu egiten dute eta lehiatzen ez direnak gauetan irteten dira. 25 eta 35 urte bitarteko gutxi ikusten dira errepide-

IZERDI PATSETAN



Goerriren denboraldiko lehen irteeran, gradu bateko hotz-beroarekin, parte hartu zuten ausartak. Argazkia: Iñaki Urdangarin.

an", diote Anton Rodriguez eta Iñaki Urdangarinek.

Gazteak eurekin irtetera animatu nahi dituzte. "Bizikletan bakarrik ibiltzea oso gogorra da eta guk taldearen babesa eskaintzen dugu. Igandero 30 bat elkartzeko gara eta gure artean denetik dago: batzuk zikloturista peto-petoak dira eta besteak lehiatu zaleak. Batzuek beteranoentzako *Master* lasterketetan ere parte hartzen dute. Hauek herrian proba bat antolatzen ari dira apirilaren 22 eta 23rako".

Anton Rodriguez eta Iñaki Urdangarin, berriz, zikloturista petoak dira. "Egun bi txirrindulari mota daude: 205 kilometroko luzera duen Quebrantahuesos froga egiten dutenak eta besteak. Lehenengok abenduan hasten dute denboraldia eta gutako askok, berriz, martxoko lehen asteburuan hartu genuen bizikleta lehenengoz".

Zikloturismoa asko aldatu da, beraz, urte hauetan guztietan. "Moda indar handiz sartu da mundu honetan, bizikletak askoz ere hobeak dira, ia denok pultsometroa eramaten dugu... Kirol honek sekulako negozioa du egun bere inguruan, Quebrantahuesos izango den astebururako Sabiñanigo eta inguruko ostatu guztiak

dagoeneko beteta daudela esatea besterik ez dago".

Zer du, bada, zikloturista froga ospetsu honek? Aurten ere 7.000 lagun inguru elkartuko dira Sabiñanigon 205 kilometroko ibilbidea osatzeko, tartean Somport, Marie Blanche, Portalet eta Hoz de Jaca mendate gogorrak igo beharko dituzte. Lehenengok sei ordu baino gutxiagotan osatuko dute ibilbidea, baina beste batzuek hamar ordutik gora emango dituzte bizikleta gainean. Milaka eta milaka pertsona, berriz, euren senitarteko eta lagunak animatzera joango dira; asko Euskal Herritik.

Parte hartzera joango direnen artean *Boniren bandakoak* ditugu. Larunbat eta igandero Anjel Mari Zarandonak Zumarragako Loiolako Iñigo kalean duen tailerrean elkartzeko dira elkarrekin irteteko. Asteazken zehar ere askotan biltzen dira Zarandonarenean txirrindularitzaz hitz egiteko. Ostiral arratsalde batean beraietako batzuekin izan ginen: 50 urtetik gora dituzten Javier Azpiazu eta Anjel Mari Zarandonarekin, 40 urteren bueltan dabiltzan Joxe Mari Mujika eta Xabier Artetarekin eta 30 urte pasatxo dituzten Iñaki Lizarazu, Aitor Chico eta Haritz Zarandonarekin.

Javier Azpiazu legazpiarra izan zen guztien artean Quebrantahuesos froga egiten lehena. "Hasieran inguruko txirrindulari onenak bakarrik joaten ziren bertara, baina urte batean ni animatu nintzen eta


**“Mundu guztiak
asteazken zehar ez dela
batere ibili esaten du
eta gero beti egia
jakiten da”**

ondoren nire inguruko jende gehiago animatu zen. Lehen aldia ez nekien nola prestatu, ahalik eta kilometro gehien egiten saiatu eta kitto". Anjel Mari Zarandonak ere duela urte dezente joan zen lehenengoz Sabiñanigora. "Lehen urteetan mendiko bizikletarekin egin genuen eta furgonetetan lo egin".

Hasieran, erronka proba bukatzea zen; baina egun ahalik eta denbora onena egiten saiatzen dira. Horretarako, prestaketa findu behar... Jose Mari Mujikak dioenez, "ondo bukatzeko eta egunaz gozatze-

IZERDI PATSETAN

Boniren banda, Anjel Mari Zarandonaren tailer ondoan, ahalik eta kilometro gehien egiteko prest.



ko 4.000 kilometro eta 180 kilometro inguruko hainbat irteera egin behar dira hara joan aurretik".

Horretarako, astebururo bizikletan ibiltzeko elkartzen dira. Ahal dutenak lan egunetan ere ibiltzen dira. "Familia dugunok ibiltzen gara okerren", dio Joxe Mari Mujikak, "Egunero negoziatu beharra dugu. Igande goiza guretzat hartzen dugu eta arratsaldeetan emazteak eta umeek diotena egiten dugu".

3.000, 4.000... euroko bizikletak erosteko ere nahikoa komeri izango dituztela pentsa daiteke. "Kontu hau ehiztariaren modukoa da", dio Iñaki Larreak, "bizikleta kaxkarrarekin hasten gara, baina sekulakoarekin bukatu". "Gure bizio bakarra da", dio Aitor Chicok, "asteaz zehar lan egin eta asteburuan bizikletan ibili eta familiarekin atera besterik ez dugu egiten".

Baina, nola sortu zen euren bigarren familia? "Hasieran lagunak eta aitaren bezeroak elkartzen ginen", azaldu du Haritz Zarandonak. "Gero ezagun gehiago etortzen hasi ziren eta egun, maiatzetik aurrera, 15 bat lagun elkartzen gara".

Eta senitartekoak ondo moldatzen al dira? Horretan guztiak ados daude.

"Okerrena Zarandona aita da, beti ibiltzen da zirikatzen eta erasoan. Dena den, guztiok batera irteten eta itzultzen gara esan behar da. Hori bai, mundu guztiak astean zehar ez dela batera ibili esaten du eta gero, azkenean, beti egia jakiten da".

Ehiztariaren pare ibiltzen dira, beraz. Izan ere, Quebrantahuesos ez da txantxa... "Onena joan aurreko prestaketa eta ondorengo afaria izaten da. Bestalde, bertara joaten den guztiak bere moduan dabilen jendea aurki dezakeela esan behar da. Beste probetan mundu guztia ziztu bizian ibiltzen da", azaldu du Javier Azpiakuk. "Gainera, geroz eta jende gehiago joaten da animatzera. Portalet igoeran Urretxu eta Zumarraga erdia egoten da", diote.

Dena den, batzuek gorriak ikusten dituzte. "1998an sekulako beroa egin zuen eta gehienek Marie Blanche oinez igo zuten", oroitzen du Anjel Mari Zarandonak. Denetik gerta daiteke gorputzari gehiegi eskatzen zaionean. "Txirringulari bat bide bazterrean txiza egiten ari zen eta apur bat beherago beste bat goitik behera zetorren ura edaten ari zen". "Beste batek", oroitzen du Azpiakuk, "hanka errepidea beroarengatik bigunduta zegoen tokian jarri zuen eta zapatila galipotaz bete zuen. Gero ezin pedalari lotu!".

ATD
HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 60

PLAZAOLA
ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70

colors

arropa informala

Barrenkale
Urretxu
943 72 40 57

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



Aitor Zabaleta

Aitor Zabaleta zumarragar peto-petoea dugu, nahiz eta bere familia Legazpiko lurretan dagoen Txara etxean bizi den, amaren familiaren Mendiaraz-goiko baserritik gertu. Aitorrek Urretxu-Zumarraga Ikastolan hasi zituen ikasketak eta, ondoren, Lizeora joan zen. "Behar baino lehenago utzi nuen eta gero Ordizian eta Elgoibarren automozio moduloak egin nituen. Hori zen nahi nuena". Izan ere, Zabaletak autoak oso gustuko ditu. "Lasterketetan lehiatzea askotan pentsatu dut, baina diru asko behar da". Auto munduan lan egiten du behintzat... "Udan Olaberriko Garaje Modernon izan nintzen eta orain Antzizarren nabil".

Dena den, Aitor Zabaleta txistularia, dantzaria eta bertsolaria delako ezagunagoa da herrian. Aurten ez du herriko bertsolarien txapelketako ostiraleko finalera sailkatzea lortu, baina Santa Isabel egunean ez du kale egingo. "Familiak apur bat bultzatuta hasi nintzen txistua jotzen eta dantza egiten eta gustuko dut. Jarraitzeko asmoa dut". Zabaletak 16 urte besterik ez zituen Antion lehenengoz kapitain izan zenean. "Urduritasun eta ardura handia sentitu nituen, han aurrean maila eman beharra baitago".

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Arotza.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Rallyak ikustera joatea, tragoxka batzuk hartzea...

-Bizitzeko toki bat?

Bizitokia dudan hori.

-Bertsotan egitea, txistua jotzea ala dantzatzea?

Momentu bakoitzean, tokatzen dena.

-Santa Isabel egunean, dantza egitea ala txistua jotzea nahiago?

Oraindik ez dakit Antion txistua jotzea zer den, beraz, ezin dut esan bata ala bestea nahiago dudana.

-Zer irudituko litzaizuke emakumeek Ezpata Dantza dantzatu nahiko balute?

Eskatu izan dute, baina une honetan ez da negoziagarria. Dena den, beharbada inoiz dantzatuko dute.

-Ikusi duzun Ezpata Dantzaririk onena?

Joseba Garmendia.

-Txistulari onena?

Ondo jotzen duten asko daude.

-Kotxearen motorraren hotsa ala txistuaren doinua?

Gidatzen noala irratian txistua entzutea.

-Gustuko autoa?

Mitsubishi EVO.

-Gustuko auto gidariak?

Iñaki Alberdi eta Joxe Labaka.

-Zuen etxea Legazpin dago, zumarragarra ala legazpiarra al zara?

Zumarragarra, inongo zalantzarik gabe.

-Ileheriak ala beltzaranak?

Beltzaranak.

-Egindako azken oparia?

Amari edo arrebari egingo nion, baina ez dut gogoratzen zer den.

-Eta jasotakoa?

Soinean daramadan jertsea izango da.

-Data bat?

Santa Isabel eguna oso gustukoa dut.

-Neska eta mutil izen bana?

Sekula ez diot neure buruari halakorik galdetu! Ez da bereziki atsegin dudana izenik.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

Ez dut asko irakurtzen, baina etxean Berria hartzen dugu.

-Gustuko telebista saioa?

Kirol tarteak.

-Bereziki gorroto duzuna?

Dokumentalak ez zaizkit batere gustatzen, animaliei buruzkoak-eta.

-Liburu bat?

Bat ere ez. Irakurtzea ez zait batere gustatzen. Autoaren mekanikari buruzkoren bat izango da gustuen irakurri dudana.

-Filme bat?

Ez naiz filmezalea, baina *Gladiator* atsegin handiz ikusi nuen.

-Soinu bat?

Haize hotsa.

-Usain bat?

Janari goxoarena.

-Janari bat?

Haragia.

-Ura ala...

Sagardo pixka bat.

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

**GURE LANAK
PREBENTZIOA
DU HELBURU**





KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Labeaga, 56-58 - 20700 URRETXU (Gipuzkoa)
☎ 943 03 66 94 - ☎ / fax: 943 72 64 63
e-mail: premank@euskalnet.net

IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,
INGURUMEN ETA
LAN-ARRISKUEN ARLOKO
SISTEMAK

Labeaga kalea, 60 ent. N
Tel. / fax: 943 72 64 63
e-mail: irnasa@euskalnet.net
URRETXU



**PO
LiT ENV**

**Eguneroko menua
Plater konbinatuak
Goi mailako pintxoak**

Astelehenetan itxita
Kalebarren, 6 - Zumarraga - 943 721 767